

EIBARKO HIRI-TOPONIMIA

ONOMASTICON VASCONIAE, 13

Eibar, 1995-03-26

Fernando Muñozguren Urkiola

Eguerdi on

Egin den lanaren koordinatzaile moduan zera esango dut, bestelako ezer baino lehen: hain zuzen ere mahaian dagozen ikertzaile gazteek lanari zirkiñ egin barik jardun dutela ekipo-lanean. Eta hemen goian egon ez arren, Begoña Bilbatuak burutu duen tajuketa-lana gorai patu eta eskertu nahi nuke. Eta, jakina, baita ere neure eskuman dagoen Patxi Salaberrirena, bere prestutasuna eta eskuzabaltasuna azpimarratuz.

ONOMASTICON VASCONIAE

13

EIBARKO UDALA
EGO IBARRA.BATZORDEA

EIBARKO
HIRI-TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

Hori esanda gero, luze, Toribiok esango lukeen moduan “San Iñazioko obria baño luziagua” joan den *Eibarko hiri-toponimia* honen historia laburra egingo dut.

Hasiera, Ego Ibarra batzordearen sorreran kokatu beharko genuke. Kanpoko gonbidatuendako, esan beharra dago, *Ego Ibarra* batzordea Eibarren eta eibartarron oroi-men historikoa berreskuratzeko sortu zela. Mundua auzo bihurtu eta antxixiketa batean bizi garen sasoiotan, jakitea gogoratzea dela konturatu behar gara eta.

Arestian esaten nihatzen moduan, hasierara etorriz, gure lehenengo pausoa Aran-zadi elkartera jotzea izan zen. Horrela jakin ahal izan genuen Oiartzunen toponimia lan bat egin zela, baina ez homologatua. Ondorengo egunetan, gaiarekin geniarduela, *Argia* astekarian Usurbilgo toponimia-lanaz ziharduen artikulua agertu zen. Egileekin berba egin eta Euskaltzaindiko Jose Luis Lizundiarekin jardun ondoren, Andoaingo pista lortu zen; orduantxe ziharduten lan homologagarria egiten.

Holaxen ba, Andoaingoekin egon eta aurkitu genuen jardunbidea, geroago etorri ziren Deiker eta abarren kontaktuak.

Informazio nahiko batu eta gero txostena prestatu, komisioan onartu, eta segidan ikerketa-lanerako kontratazioak egin ziren.

Era horretan Filologia eta Historia lotzea pentsatu zen. Azken batean, egin behar zen lana eta berorren balorea historikoa eta filologikoa da eta. Lehenengo Esther Zarrara filologoak eta Roberto Querejeta historialariak 7 hilabetez jardun zuten. Ikerketa borobildu barik gelditu zenez, beste hiruhilabetez jardun beharra egon zen eta, 2. txanda honetan Estherrekin batera Aitor Ogiza historialaria ibili zen.

Lana gauzatu eta hezur-mamitzeko ibilbidea Estherrek adieraziko duenez, liburuaren eduki edo kontenidoaz eta balorazioaz amaituko dut neure jarduna.

Liburuak hiru atal nagusi ditu:

Lehenengoan sarrera orokorra. Hor, Alkate jaunaren agurraren ondoren, lanaren nondik norakoak, erabilitako metodologia, informazio-iturriak, izenak normalizatzeko erabilitako irizpide eta kriterioak, toponimoen distribuzioa kontzeptuka eta esparruka eta, amaitzeko, Eibarren gainea, motx-motxean, jakinbeharrekoak. Hala nola: Geografia, hidrografia, landaretza, ekonomia, herri-egitura e.a. Arlo horiei lotuta ere, hainbat eta hainbat toponimo jaso dira eta.

Sarreraren ostean datoz aurkitutako 1500 lekuizenen zehaztasunak alfabetikoki.

Hirugarren atalean lekuizenen indizea edo aurkibidea orrialdeka jarrita.

Eta, azken atal moduan, planoak: bata 1901ekoa eta bestea 1988koa. Lehenengoan kaleko lekuizenak eta bigarreanean inguruak jarri dira. Jakina, ez denak, larregi lira-tekeelako.

Ondorioen gainean esan liteke, horretarako aproposena ez banaiz ere, lan polita egin dela bai ikertzen eta bai jasotakoari forma ematen. Hala ere, ez da pentsatu behar herriko lekuizen guztiak jaso direnik, era honetako lanak ez dira eta %ko %ean sekula amaitzen.

Beste alde batetik, pentsatu behar dugu, liburu honetan eibartarron ondare edo patrimonioaren zati ederra daukagula, geure historiaren adierazle. Eta, jakina, bertoko euskararen ispiluetako bat.

Aplikazioak direla eta, besteak beste, historia eta filologia arloko ikerketa eta inbestigazioko tresna izateaz gain, orain ez dago aitzakiarik komertzio eta etxe berriei izen egokiak jartzeko. Hor dago Torrekuaren kasua. Berdin lantegiak, kaleak e.a. izendatzeko.

Udalak berak ere kontuan izan beharko luke kale-izendegia eraberritu, egokitu edo izendapen berriak egiteko.

Hori guztiori gutxi ez bada ere, irakurketarako ere kurioa da. Ez da bakarrik teknikoendako liburua. Horregatik, nik uste dut, berbakizuna ipiniko duela eta oroimen historikoa transmititzeko tresna baliagarria dela

Eskerrik asko

EIBARKO HIRI-TOPONIMIA

Eibar, 1995-03-26

*Roberto Kerexeta,
Esther Zarraua,
Aitor Ogiza*

0. SARRERA

1991. urteko udazkenean eman genion hasiera Eibarko Ego-Ibarra batzordearen ideia bati jarraiki hemen aurkeztu nahi dugun lanari. Aspaldidanik zenbait eibartarren buruetan zebilen asmoa zen Eibarko hiri-toponimia jasotzearena, eta halako batean, zorronez, gauzatu da nahi hau.

Gaiari heldu aurretik aipatu gura dugu ezin dugula esan *Eibarko hiri-toponimia* izenaz kaleratu den liburu honetan esparru horretako tokizen guzti-guztiak agertzen direnik, hori eginez gero egiari iruzur egingo genioke eta. Beldurrik gabe adieraz deza-keguna ordea, ondorengo da: izandako denbora-mugen barruan ahalik eta arakatzeko lan handiena egin dugula, euskararen batasunaren mesedetan jasotako izenen aldaera normalizatuak ere proposatuz. Puntu honetan Patxi Salaberri Zaratiegi Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidearen laguntza guztiz mesedegarri gertatu zaigula azpimarratu nahi dugu.

Ikerlana bera hamar bat hilabetetan burutu dugu, nahiz eta taxuketa eta prestaketa lanetan denbora gehiago pasatu.

Guztiarekin, Jimeno Jurio eta bere taldekideek Nafarroako toponimia bilketarako emaniko urratsak eta Pasaia eta Andoainen buruturiko toponimia-lanak erreferentzia puntu nagusi bihurtu dira gure lan honen metodologia hautatzeko orduan, Luis Mari Mujika eta Juan San Martinen lanak alde batera laga gabe.

1. METODOLOGIA

Gure lana Planeakuntzarako Arau Ordezkatzaileen barruko eta ingurutako, hau da, kale diren edo urbanizatze dagoen lurralde osoko leku-izenak biltzea izan denez, lehenengo eginbeharrekoa herribarneari mugak jartzea izan da. Lan hori ez da erraza gertatu, hiriaren bilakaera dela medio mendi aldera sartzeko ezer ez baita behar.

Herribarrukotzat jo ditugu herriaren gunearen inguruan azken urteotan sortutako auzo guztiak eta Planeakuntzarako Arau Ordezkatzaileen barrutiaren inguruak, bertako tokizenak besteak bezain garrantzitsuak dira eta.

Bideak ere lehenengo mailako elementutzat hartu ditugu, bideen inguruan eraiki ohi denez gero.

1.1. **Fitxaketa**

Tokizenen aldaera guztiak (data eta agiri edo testigantzen erreferentziaz) agertzen dira fitxa bakoitzean, baita toponimoak adierazten duen kontzeptua, non dagoen kokatuta, eta sarritan gainontzeko argibiderik ere agertzen dugu.

1.2. **Datu-iturriak**

Iturri hauek hiru eratakoak dira: bibliografikoak, agiritegiak eta ahozko testigantzak.

1.2.1. Bibliografia

Erabilitako bibliografia bi modutakoa da: alde batetik Eibarri buruzko informazioa ematen diguten liburu eta aldizkari-artikulu historikoak; bestetik, ikerketaren alde teknikoak jorrazteko liburu baliagarriak.

Lehenengoen artean Toribio Etxebarriaren lanak eta Gregorio Mujikaren *Mono-grafía histórica de la Villa de Eibar* nabarmenduko ditugu.

Bigarrenen artean *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza*, lehen aipaturiko taldearen emaitza eta Luis Mari Mujikaren *Euskal toponimiarako materialeak* dira gehien lagundu digutenak.

Juan San Martinek buruturiko lan ugariak arlo bietarako laguntza handia eman digute.

1.2.2. Agiritegiak

Lau dira erabilitako agiritegiak:

- Eibarko udal-artxibategia.
- San Andres elizako agiritegia.
- Oñatiko Protokolo eta Hipoteka artxibategia.
- Jabetza erregistroa.

1.2.2.1. Eibarko udal-artxibategia

Agiritegi honetatik jaso ditugu 500 bat toponimo, guztiaren % 034a.

Artxibategi honetan era guztietako agiriak daudenez gero, aurre aukeraketa egin, eta ondoren ekin genion uzta-lanari, artxibategi historikoari arreta handiena emanik.

Bildutako toponimorik gehienak XIX. eta XX mendeetakoak dira, nahiz eta XV, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako batzuk ere agertu.

1.2.2.2. Elizako agiritegia

150 bat etxe izen edo oikonimo eskeini dizkigu artxibategi honen miaketak, guztiaren % 11 egiten dutela.

1918 eta 1958 urteen bitarteko jaiotza eta heriotze liburuak erabili ditugu gure ikerlanerako, lehenagokoak Gasteizko elizbarrutiko artxibategian daude eta.

Gure ustez lortutako informazioa ez da oso fidagarria, sintaxi eta ortografia huts dexente ageri direnetik, izenak gaizki idatzita eta desitsuratuta agertzen baitira.

1.2.2.3. Oñatiko protokolo eta hipoteka artxibategia

470 toponimo inguru jaso ditugu Oñatin, osotasunaren % 33a eginez. Agiri zaharrenak XVII. mende bukaerakoak dira, eta berrienak 1862. urte ingurukoak.

1.2.2.4. Jabetza Erregistroa

530 bat toponimo (% 38) batu ditugu artxibategi honetan gordeta dauden 392 liburutatik. Agiritegian dagoen material handia ikusirik, lana errazte aldera, oso gauza konkretuak arakatzeari zuzendu genion gure interesa.

1.2.3. Ahozko testigantzak

Aurretik jasotako datuak erkatzeko eta batzuetan ordurarte agertu gabeko toponimoen berri edukitzeko balio izan digute ahozko testigantzek.

Hamairu laguni egin dizkiogu grabaketak, eta jendea aukeratzeko erabilitako irizpideak hauek izan dira: adinez nagusiak izan eta galdeketa egin zaion tokian bizi izatea luzaro, Eibartik kanpo denboraldi luzerik egin gabe.

Informatzaileek emandako lekuizenen transkripzio fonetikoak ere azaltzen da liburuan, gerora begira argibide esanguratsua da hau eta.

1.3. Lekuizenen normalizazioaz

Jasotako toponimoen normalizazioari ekiterakoan, lehenago esan bezala, Jimeno Jurio eta bere taldeak Nafarroako Gobernuarendako toponimoen jasoketa-lanean diharduen taldeak erabilitako irizpideei jarraiki gatzaizkie. Beraz, atal honetan, beraiek liburuan azaltzen dituzten puntuen laburpena baino ez dugu egingo. Hauek dira nagusiki:

Toponimoak eta euren eratorriak antzinako terminoak direnez, denborarekin desiturratuz joaten dira eta, sarritan, ahozko- eta idatzizko erabilera urrunduz.

Bestalde, eskribauek jasotako terminoek desberdintasunak dituzte.

Batzutan aipatutako bilakaera medio eta beste batzutan eskribauen euren erruz.

Ez da ahaztu behar grafiak berak duen eragina hizkuntzaren erabileran, sasoi batean irakurtzeko gaitasuna mugatua izan arren, zenbait kasutan erabilera zuzena oztopatzen baitu.

Aipatu faktore nagusi horiek eta beste batzuk kontuan izanda, toponimoen normalizazioa egiterakoan, maiz zaila egin arren, logikaz jokatzeko saiatu gara lanari koherentzia eta oreka eman nahian.

Hala eta guztiz ere Eibarko herriaren kokapen geografikoa kontuan edukiz gero terminoak normalizatzerakoan zenbait alternantziarekin aurkitu gara eta hori izendegian isladatzen da. Hala nola. *-barri / -berri...*

Era honetako lanetan ohi den bezala izen generikoak batueraz eman ditugu eta, espezifikoei malguago jokatu dugu bertako euskalkiaren jokaera zenbait onartuz eta nortasun handia errespetatuz.

— Ez dugu bokal armonia errespetatu. Beraz, *Urkizu* idatziko dugu, ez *Urkuzu*.

— *ea > ia* pausoa emana denean jatorrizko forma hobetsi dugu.

— *oa > ua* pausoa emana denean ere, beti jatorrizko forma aukeratu da.

— Dardarkari azkar baten eraginez /e/ ireki eta /a/ bihurtu den toponimoetan hau espezifikoetan gordeko da, ez generikoetan. Adb. *Etxebarri* idatzi dugu.

— Bokal protetikoa galdu denean errekuperatu egin dugu. Adb. *Errialtzu* eta ez *Realzu*.

— Aspaldiko hasperenketaren galeraren ondorioz bokal-elkarketa gertatu denean, bat egindako forma onartu dugu. Adb. *Estrata-arra*, eta ez *Estratazaharra*.

— Apofonia jasan duten eta ez duten formen arteko zalantzak badaude, euskara bizi den herrietan egun ibiltzen den forma hautatu da, eta bietako bat toponimoa desagertua denean, haren aspaldikotasuna eta maiztasuna kontuan hartuta. Biek pisu bera dutenean, apofoniadun aldaera nagusitu da. Adb. *Bidaburu* eta ez *Bideburu*.

— Toponimoa izen + izenondo osatua dagoenean loturik idatzi dugu. Adb. *Solosakona*, *Labazatarra*,...

1.4. Toponimoen kokapena eta planoak

Egiteke geratzen zitzaigun lana jaso eta normalizatutako toponimoak lekutzea zen. Hori ez zen egiteko erraza izan, zenbaitetan toponimoa bildutako agirian bertan kokapena argi azaltzen bazen ere, hori gutxienetan gertatu baitzen, eta gehienetan aparteko ikerketa baten ondorioz lortu genuen izenon kokapena finkatzea.

Informazio hori isladatzeko bi plano erantsi dizkiogu liburuari. Bata 1903koa, non sasoi horretako hirigunea eta aurkitutako lekuizenak ematen diren. Bestea 1988koa, bertan gaurko hirigunea eta inguruak agertzen dira, eta hirigunetik kanpoko tokizenak azaltzen ditu.

Aipagarria da bildutako toponimoetatik 330 kokatu direla soilik planoetan, bestela zaila litzateke irakurri ahal izatea.

1.5. Zenbait toponimo

Etxe-izenak: Ategorrikoa, Banakanekoa, Bolinbekoa, Elizostekoa, Erdikoa, Errikoa, Flamenkokoa, Foterokoa, Fraiskoantongoa, Ikatzerre, Izotzanekoa, Kapitantx, oanekoa, Konejoeneko laba, Konfitekoa, Lekianekoa, Makatzanekoa, Malenkarajonekoa, Milloitxoanekoa, Otsoerrota, Otxabina, Sutegizarra, Txispagingoa, Txokolaterokoa, e.a.

Kale-baserrien izenak: Bolingoa, Buztinzuri, Eltzartzaga, IsasiOlagizongoa, Kapagingoa, Legarra, Makalarrokoa, e.a.

Errotak: Apalategi, Arkaxpe, Arrietarras, Balerioneko errota, Barrenazarra, Portalekoa...

Bideak: Aldatzako estratabidea, Arrovide, Errelkaldeko bidea, Ultsagako estrata...

Errekatxoak: Arlastako erreka, Burukain, Errekabartetxikia, Juandeatxaerreka, Kortatxoerreka, Lisibaerreketaketa, Txapardetako errekatxoa, Ubergako erreka.

EIBARKO HIRI-TOPONIMIA LIBURUA DELA ETA

Eibar, 1995-03-26

Patxi Salaberri

Jaun-andreok eguerdi on:

Iragan astean Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskara-teknikaria eta biok gure hizkuntzaren zenbait kontuz ari ginela, Unibertsitatearen ondoan-ondoan dagoen *Sadar* toponimo hizkuntzaz kanpoko arrazoiengatik ezaguna hartu genuen hizpide. Izan ere, Iruñeko Udalak bertan jarri berri dituen bide-seinaleetan *Zadar* ageri da, hasieran z-duela, orain lau mende eta erdi arteko dokumentazioan –*Zaadar*-ekin batera– azaltzen den aldaera, nahiz egungo egunean horrelakorik erraten duen iruindarrik ez kanpotarrik ez dagoen.

Toponimia normalizatzeko orduan, gure irudiz, “historizista”-tzat jo dezakegun jokatibide hau alde batera utzi beharra dago, erabat zaharkiturik dauden aldaerak artifizialki biziberrituko ez baditugu. Zaharkitua egotea edo ez egotea, halaz ere, ez da berdin neuritzen Euskal Herriko herrialde eta alderdi guztietan. Gipuzkoan eta Eibarren, adibidez, zaharkitutzat XVIII. mendeko aldaerak har ditzakegu, euskara oraindik bizirik egonik toponimoek jasan duten itxuragabetzea (oso) arina baita kasu askotan, beste eskualde batzuetan gertatu denarekin alderatzen badugu, behintzat. Nafarroako alderdi zabal batean, ordea, euskararen galera mende horretantxe –XVIII.ean– burutu zen, eta beraz, forma desitxuratuak berritxuratzekotan mende horretara eta baita atzerago ere itzuli beharko dugu. Hortaz, eta ondorio moduan, zera esan dezakegu, *zaharkidura* parametroa diferentea dela hemen eta han.

Nolanahi ere, toponimia normalizatzerakoan atzera, iraganera begiratu behar dugula gauza argia da, leku-izenek beren baitan biltzen duten kultur ondarea atxiki nahi badugu behinik-behin. Gaur aurkezten den lan honetan, adibidez, agirieta arruntena den *Abauntzaga* aldaera hobetsi da, ez XX. mende arte azaltzen ez den *Abaunza* edo oraingo eratorrietako *Abontza* monoptongatua. Orobat, XIX. mende arte dokumentazioan bakarrak diren *Anbeña*, *Anbeñaburu* hobetsi dira, ez forma asimilatua biltzen duten 1860tik aurrerako *Amaña*, *Amañaburu*. Bide beretik, 1869 arteko *Arkiskadi* hautatu da, ez egungo *Arkiski(n)di*, 1584rako azaltzen den *Artegieta*, ez oraingo *Arteitxa*, *Eztiaga* (txistukaria gorabehera), ez oraingo *Estixa*, dokumentazioan ia bakarra den (1846

arte bakarra) *Ipuruaga* (eta eratorriak: *Ipuruagabarren*, *Ipuruagaburua...*), ez *Ipuru*a laburtua (toki-izen honek aparteko arazoak sortarazten ditu, halaz ere); *Irarragorri*, ez *Iragorri* laburtua, *Legarra* (1812 arte), ez data horretatik aukerako *Legarre* (*Legárre*), *Olaerreaga*, ez *Olárria...* eta egoera berean dauden beste hainbat.

Toponimoak normalizatzeko orduan aintzat hartu behar den beste puntu bat izen batek dituen aldaeren —toponimo gehienek izaten dituzte aldaerak— *maiztasuna* dugu. Alegia, dokumentazioan aldaera bat zenbatetan agertzen den ikusi eta kontuan hartu behar dugu, eta honekin batera noiztik noiz arte agertzen den. Aldaera bat askotan azaltzen bazaigu, eta nahiz egun bizirik dagoenarekin bat ez datorren, hobetsi egin beharko dugu —egungo hitzunei zenbaitetan gogortxo egingo bazaie ere— bereziki hitzaren jatorria argiago islatzen badu, etimologikerietan erori gabe ordea, bestela berriz ere gogoro aipatu forma zaharkituetara hurbilduko baikinake, kasurik hoberenean.

Leku-izenen normalizazioa egiterakoan oso garrantzi handikoa den beste puntu bat tokian tokiko *ezaugarri dialektalak* zein neurritan errespetatu behar diren erabakitzea eta zehaztea da, eta zer sarrera eman behar zaion oraingo euskara normalizatuari, bai ortografiaren aldetik, eta bai —batez ere— fonetika eta morfologiaren aldetik. Lan honetan ikusten den bezala, eta ortografiari dagokionez, generikoetan *h-k* nolabaiteko sARBIDEA izan duela esan daiteke. Cf., *Békoláua* → *Beheko laua*, *Beco-solua* → *Beheko soloa*, *Gorostadiko hegía*, *Or-ezpengo* → *Hor ez bahengo*, *Kanterako gaztañako hegía...*

Fonetikari eta morfologiari buruz, Eibarko hizkeraren ezaugarri diren zenbait gertakari alde batera utzi dira, nire ustean irizpide onez gehienetan (cf. *Arotzanekua* → *Arotzanekoa*, *Barrenatxikixa* → *Barrenatxikia*, *Barrenengo subixa* → *Barrenengo zubia*, *Barrenkália* → *Barrenkalea*, *Basatei* → *Basategi*, *Bizar'eneko eranteixa* → *Izarreneko edantegia...*

Bestalde, zuzena iruditzen zait bikoiztasuna dagoenean soinurik zaharrenaren alde, jatorrizkoaren alde, egitea: *Bittoraundiarena*, ez *Bitxor-*, *Katamengako iturria*, ez *Katamíngako iturrirra...*

Generikoetan batzuetan orokorra den bertako aldaera hobetsi da, arestian aipatu adibideetan ikus daitekeen bezala: *Bidebeko soloa*, *Etxeburuko soloa*, ez *Bidebeko soroa*, *Etxeburuko soroa* (toki-izen hilak dira, horratik), *Konejoeneko laba*, *Osteko laba...* Ez beti, halaz ere: *Ibarreco curucea* (dok.) / *Ibárkurutzán* (sic. ahozkoa) → *Ibarreko gurutzea* (nahiz gero *Kurutzegain*, *Kurutzekoa...* eta abar normalizatu).

Inoiz edo behin generikoa “garbitu” egin da: *Isasiko palasua* → *Isasiko jauregia*, *Ospitalosteko kantería* → *Ospitalosteko harrobia* baina ez beti: *Isasiko presía* → *Isasiko presa* (ez uharka), *Otaolako kanteria* → *Otaolako kantera* (hemen, halaz ere, *Otaolako kanteraldea* ere bada, eta honek *Otaolako kantera* hobestera bultzatu du).

Beste batzuetan ez dakit asmatu dugun, batik bat *Baster-Bazter*- bilakatu dugunean, edo *Bustin-Buztin*-; noiz edo noiz, azkenik, oker jokatu dugula uste dut, *Eskorta* → *Ezkorta* bihurtaraztean, konparaziorako, eta beste maila batean dokumentazioan -s-z edo -ch-z agertzen den *Insaurdieta*, *Inchaurdieta*-k *Intsaurdieta* behar lukeela iruditzen zait, -ts-z, ez *Intxaurdieta*. Orobat, *Luberria*-k *Lubarria* (*Lubarrixa* egun) behar zuela uste dut, eta agian *Matsaria* → *Matxaria*, ardantzea zela erabat garbi ez baitago, oker ez banago.

Bukatzeko, gaur aurkezten den lan hau nire ustean lan ederra dela esan nahi dut, euskara hobeki ezagutzeko tresna baliagarria, eta Eibarri berari kalterik ez, baizik mesede egingo diona.